

NEGOZIAZIOA BAKERAKO BIDE

Euzkadiko gotzainak, abenduan, atara izan daberen karta pastoralak, makina bat istilu ta izkanbila sortu izan ditu. Emen ta kanpoan. Baliteke kanpoan istilu geiago ataratzea. «Emen jo txillina ta kanpoan otsa entzun», esan eban Juan Mari Uriartek berak, euskal telebistan. Belarri «motzetan» doñu zakarrak ta belarri «ederretan», ostera, aingeruen otsa. Karta onen doñutan, dantza berean ez dira ari Fraga ta X. Arzalluz, Alfonso Usía ta Zubicaray, ezta Martin Descalzo ta Scheiffler be. Badira, bai, lur gainean agertzen ez diran mugak. Aragizko biotzetan daroaguzan aberriaren mugak ez dira bombakin isiltzen.

Gure gotzainak, euskal errian, sustraitu bizi dira. Ez dabilta lañotan. Jakin badakie momentu istoriko baten aurrean aurkitzen garala: «Errien istorian badira garaiak errien etorkizuna bein betirako markatzen dabezanak. Olako garai inportante baten aurrean gagoz». Etapa barri bati asiera emoteko, «pauso ausarditsuak» ermon bearrean gabilta. Ta eurak izan dira ejenplu karta au zabalduz.

Ezin daikegu gotzainei politikkeririk leporatu. Ainbat jaun-txoentzat, Euzkadiko gotzainak politikan sartzen dira. Jauntxo orreen politika egiten ez dabemian, orduan leporatzen dautsoe Eleizari politika egiten ari dala. Beti izan da ori ta beti izango da olantxe. Argi diñoe gotzainak: «Ez dogu nai beste inoren barru-

tian sartu nai. Baina artzai ardura emon jaku eta ez dauzagu geure erantzukizunari uko egin nai. Gure zeregin pastoralari dagokion zerbait da balioztatze moralaren oinarriak kristauei eskeintzea».

Kontuan daukez gure erriaren zatiketak, baita desberdintasunak be. Ta galdera larri oneek jaurtiten dabez: «Gauzak olan izan bear ete dabez derrigorrez, eta gizon-emakumeak ezin ete doguz geure desberdintasunak beste era batera konpondu?» «Ze arrazoi emon leike, orain bertan egin leikena gerorako izteko, geroagoko egoera gaur daukaguna baino ohea izango dan inolako itxaropenik ez badago? Naizta galdera larri oneek egin, goztainak ez dira negarti ageri. Oso itxaropentsuak dira idazki guztian. «Zorionez istoriak erakusten dauku, giza espirituak bada-bela ainbat indar, zapalketarik gogorraneran erdian be, bein eta barriz bere askatasunaren alde altxatzeko». «Ez dago etsipenean gelditzerik». «Posible da bakea egitea». «geure esku dago ibilbide oni aurpegia emotea». «beti da posible pertsonen biotzetan bakearen azia ereitea».

Apaltasunez ta maitasunez inguraturik datorkiguz. Badakie euren itza ez dala Euskalerrri guztiaren itza, baina, bai, maitasunez beteriko itza. «Euskal erriari Elizak esaten daben itz onek ez dau esan nai euskal erriaren itza danik. Maitasunez guztiei esandako itza nai dau izan eta, batez be, erri onenganako maitasunez esandako itza». Aurrean dauke zein dan arazo nagusia. Adarretik oratzen dautsoe arazo aundi ta zail oni. «Poliziazko prozedura hutsak nai dabezanen eta politika alorreko neurriak ere erabiltzea eskatzen dabenen artean» dagon arazoa or dago. Ta ori konpontzeko oiñarriak kontuan dabez. Azken baten arazo ori gaınditzeko ezin baztertu egi biribil oneek: «Ez dago bake iraunkorrik, zuzentasunik gabe». «Garrantzi aundiagoa dau bakcak, alderdien interesak eta bakoitzaren protagonismoak baino». «Arazo onetan jarrera politiko bat baino geiago egon daikez». «Gizabanakoen antzera, erriak be euren istoria jakina dauke». «Dogmakeria eragozpen gertatzen da egia istoriko objetibora iristeko». «Geiengoak aditzera emondako erri-borondateak izan bear dabe bakerako lege». «Negoziaketak 'prezio' bat dau berez». «Us-

tezko naiz benetako delitugile diranen eskubideak». «Delituak zapaltzeko eta delitugilei erasotzeko ikerkuntzetan torturaz baliatzea prozedura makurra eta moraltasunik gabea». «Ez dago inor errudun jotzerik bere errua ziur azaldu artean». «Gizona jaun izatea eta bere istoriaren egile aske izatera deitua».

Olako oiñarriak tinko iraun bear dabez. Bestela guzurrezko bakea izango da. Gure gotzainak ez dabe sinistuten bildurrezko bakean, ezta metralletazko bakean be. Ez dabe nai gure erri mai-tearentzat odolezko bakerik, ezta kanposantuko bakerik be.

Gaurko gizartean ixte aaztuta daukaguzan beste oiñarri bi be aurrean ipinten dauskuez. Barkamena ta otoitza «Mendeku ta kontu garbiketak» ez dauke lekurik bake bidean. «Ez daukagu beti atzera begira bizitzarik». «Bakea, gure errian, nor bakoitzaren eta gizartearen arteko adiskidetzaren bidez dago». «Bakarka eta gure kristau alkarteetan egin bear dogu otoitz, gure bake itzaropena bizkortzeko». Gizon barrien bakean ta aragizko biotzetan ezarritako bakean sinestuten dabe Euzkadiko gotzainak.

Karta au kristau katolikuentzat zuzenduta dagoanez ta Andra Mariaren urte santuan gagozanez, ezan txarto etorriko, Ama Birjinaren izena aipatzea. Gosotazun ta samurtasun giroa, bake bidcan, falta ez daiten.

A. Olea